



2021ko abenduaren 3a

Andoni Rastrollo
Asier Arenas
Julen Villafafila
Juan Mauricio Loaiza

Funtzesko baliabideak

Proiektu hau ondo atera dadin, garrantzitsuena konfiantza da, bai lan egingo dugun enprekin dugun konfiantza, bai bezeroekin dugun konfiantza. Konfiantza hori elkarrekikoa izatea espero dugu. Produktuaren lehen inpaktua ere garrantzitsua da, badakigu hasieratik ez direla unitate asko salduko, baina denborak aurrera egin ahala, espero dezagun ondo funtzionatzea.

Produktua merkaturatzen den lehen hilabetetik aurrera, bezeroek doako bidalketa-prezioa eta dendetan % 20ko beherapena izango dute, produktua modu erosoagoan ebaluatu eta gure web orrian duten zerbitzuari buruzko iritzia eman ahal izateko.

Kontuan izan behar da aldez aurretik esperientziarik ez duten enpresaburuak garela, eta horrek alde positiboa eta negatiboa izan dezakeela. Horren alde txarra da esperientziarik gabekoak garela; bestalde, esperientziarik ez izatearen alde ona da gogo handia dugula aurrera egiteko eta enpresa baten kudeaketari buruz ikasteko.

Produktuaren irabazien zati bat gure produktuaren gaineko inbertsiora bideratuko da, hura hobetzeko eta bezeroak gero eta gehiago asetzeko. Gainerako dirua enpresako kideen artean banatuko dugu, erdibana, eta langileei eta lan egiten dugun enpresei ordaintzeko ere erabiliko dugu.